



GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

2015/2016 Kurtsoa

AHALDUNTZEA ETA GIZARTE PARTE-HARTZE ESTRATEGIAK

**Kasu baten azterketa: Nahikari prostituzio
programa**

Egilea: Alejandra Codesal Celorio

Zuzendaria: Nekane Beloki Arizti

Leioan, 2016ko Irailaren 5ean

AURKIBIDEA

SARRERA	3
1. MARKO TEORIKOA	4
1.1 Ahalduntzea, gizarte eraldaketarako oinarri	4
1.2. Boterea eta parte-hartzea estrategia askatzaile gisa	6
1.3. Prostituzioa eta estigma: bazterketaren binomioa	14
1.4. Laburbilduz.....	20
2. METODOLOGIA	22
3. LANAREN GARAPENA	25
3.1 Deskribapen kritikoa.....	25
3.2 Diskurtsoaren analisisa.....	27
3.2.1 Autoestimuan eraginak	27
3.2.2 Diskriminazioaren analisiaren bidez, kontzientzia kritikoa garatu ..	29
3.2.3 Estigma gainditzeko artikulazio estrategiak garatuz.....	31
4. ONDORIOAK	33
5. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	35
6. ERANSKINAK	
1. Eranskina – Nahikari programa	38
2. Eranskina – Elkarrizketen gidoia.....	40

AHALDUNTZEA ETA GIZARTE PARTE-HARTZE ESTRATEGIAK

Kasu baten azterketa: Nahikari prostituzio programa

Alejandra Codesal Celorio

UPV/EHU

Lan honen bidez, ahalduntze kontzeptuaren errebisioa egin nahi da, bai eta honek gizarte eraldatze estrategietan dituen eraginak aztertu ere. Horretarako sexu langileen kolektiboari helduko diogu, estigmak zeharkatutako kolektiboa den heinean gizarte parte-hartzea proposatuz garapenerako gako gisa. Honekin batera, esparru honetan gizarte hezitzaileek izan dezaketen jardunaz hausnartzea ere bilatzen da, izaera honetako prozesu askatzaileetan garatutako esku-hartze proposamen bat mahai-gaineratuz. Honetarako, Kasu Azterketa metodologiaz baliatu gara, behaketa parte-hartzailea gauzatuz eta aztertutako ahalduntze prozesuan murgilduta egon diren sexu langileei elkarrizketak eginez.

Hitz gakoak: *Ahalduntzea, parte-hartzea, boterea, estigma, sexu lana*

Mediante este proyecto se pretende hacer una revisión del concepto de Empoderamiento y de sus implicaciones en las estrategias de Transformación Social. Nos centramos para ello en las Trabajadoras Sexuales como colectivo atravesado por el estigma apostando por la participación social, siendo ésta clave para la promoción. De esta manera se pretende también reflexionar acerca del papel de los Educadores y Educadoras Sociales en este ámbito y acercarnos a una propuesta de intervención en procesos emancipadores de éste carácter. Para ello se ha utilizado el método de Estudio de caso llevando a cabo la observación participante así como diferentes entrevistas a trabajadoras sexuales implicadas en el proceso de empoderamiento analizado.

Palabras clave: *Empoderamiento, participación, poder, estigma, trabajo sexual*

By this project is expected to do a revision of the Empowerment concept as well as of its implications in Social Transformation strategies. In order to do so, we focused on social workers as a stigmatized collective betting on social participation, being this key to promotion. In this way it is searched as well to reflect on educators' role in this field approaching to an intervention design in this kind of emancipation processes. Therefore, case study methodology has been used, being helped by participant observation as well as different interviews to sex workers who have been involved in the empowerment process analyzed in this project.

Key words: *Empowerment, participation, power, stigma, sex work*

SARRERA

Lan honek, parte hartzearen inguruko azterketa egitea bilatzen du, inklusio programetan arrakastarako eta ahalduntzerako arrakasta gako gisa aurkeztuz. Horretarako, kolektibo zehatz batean zentratuko gara, sexu langileen kolektiboan hain zuzen. Izan ere, lanean zehar jorratuko denez, parte hartzea eta ahalduntzea estuki lotuta dauden bi kontzeptu dira eta kolektibo honi ahotsa eta parte-hartze espazioak ukatu izan zaizkionez honen aldarrikapena egingo da. Sexu langileek, diskriminazio anitza pairatzen dute bere baitan, eta hortaz aldagaien korrelazio hori hartu beharko dugu aztergai, bizi dituzten baztertzeko mekanismoen arteko elkarrekintza modu holistikoan ulertu ahal izateko. Izan ere, prostituzioa izatez, gure gizartean estigmatizatutako lana dugu eta kolektibo honen gehiengoa emakumeek osatzen duten heinean, diskriminazio bikoitza pairatzen dute: emakume izateagatik eta prostituzioan aritzeagatik. Honi, beste diskriminazio anitz gehi dakizkioke: maila sozioekonomiko baxua, etorkina izatea etab. Azken hauek hala ere, ez dira modu zuzenean lan honetan aztertuko. Aitzitik, prostituzioak gure gizartean duen kokapenari helduko zaio. Ezinbestekoa zaigu hortaz, genero ikuspegitik aztertzea dagokigun gaia, bai eta ahalduntze programak hura kontuan hartuta garatzea ere.

Gai honen aukeraketa, gizarte hezitzaile gisa sexu lanaren inguruan kokapen teoriko zein praktikoa garatzeko sumatutako beharragatik sortzen da. Izan ere, polemika ugari sortzen dituen gaia izanik eta honetan aritzen diren langileek behar beste arreta zein babesa jasotzen ez duten heinean, gizarte konpromisoaren bidez eztabaida publikoetara jausia eman beharko duen gaia dugu hau. Honetan, gizarte hezitzaileok zeresan handia dugularik. Lan hau beraz, ikuspegi teorikotik lantzea beharrezkoa da; edozein esku-hartze programak azterketa teoriko sakona behar baitu oinarri gisa, eta horrela, parte-hartze, ahalduntze, eta boterearen arteko harremana izango dugu aztergai genero perspektibatik. Hala ere, kolektibo zehatz honek duen bereizgarrietako bat subjektibitatearen ukazioa izan da. Hau da, gizarteak estigmaren bidez ahotsa eta izana ukatu izan die. Hortaz, lan honek, izate horren aldarrikapen izatea ere bilatzen du, juizioetatik haratago, duten agentzia aitortuz. Horretarako, esperientzia praktikoa zehatz batean oinarrituko da, zeinetan, batez ere gai hauen protagonisten iritzia zein aldarrikapenak plazaratzea bilatuko den. Honekin batera eta gizarte hezkuntzaren

zeregin praktikoetara bueltatuz, kolektibo honekin batera diseinatutako esku-hartze eta ahalduntze programen inguruko ikasketa prozesua suposatuko du.

Hau ikusirik, lana bi ataletan banatuta egongo dela esan dezakegu, bi atal hauek lotuta daudelarik. Lehenik eta behin, aipatutako kokapena gauzatzeko errebisio bibliografikoa egingo da, ahalduntzearen, parte-hartzearen eta sexu lanaren inguruko gako ezberdinak plazaratzeko kontzeptu hauek elkarlotuz. Jarraian, eta aipatutako teorian oinarriturik, ezagututako esperientzia praktikotik hartutako hainbat ekarpen islatuko dira, esan bezala sexu langileen ahotsa islatu nahirik.

1. MARKO TEORIKOA

1.1. Ahalduntzea, gizarte eraldaketarako oinarri

Prostituzioaz eta ahalduntzeaz mintzatzera goazelarik, ezinbestekoa zaigu hauek sakonean analizatzea eta hauetan eragiten duten eta konplexutasuna ematen dieten faktore ezberdinak kontuan hartzea. Ahalduntzea, ezinbestean gizarteko kolektibo zapaldu edota honen parte diren norbanakoen prozesu askatzailearekin lotu beharra dugu, honek bere barnean dimentsio ezberdinak hartzen dituelarik. Horrela, “norbanakoak bere bizitzarekiko kontrola hartzearen prozesua edota gizartean baztertutako talde baten giza eskubideak eta justizia soziala bermatzeko prozesu politiko” (FRIDE, 2006, 3.or) gisa definitu dezakegu. Definizio honetan beraz ezinbesteko elementu adierazgarriak topa ditzakegu, gako direnak kontzeptu honen osotasuna ulertzeko; kontrola hartzearen prozesua, giza eskubide eta justizia soziala, eta azkenik, prozesu politikoa.

Prozesu politikoa, ezin baititugu zapalkuntza egoera, eta honetatik abiatutako ahalduntzea ulertu estruktura sozio-politikoa aztertu gabe honek zehazten baititu zapalkuntza harremanak. Beraz, helburua emantzipazio prozesu baten bidez harreman hauek iraultzea bada, prozesu edota esku-hartze isolatuak gainditu beharko dira, dimentsio eta zentzu estruktural bat emanez prozesuari. Ahalduntzea testuinguru politiko eta historikotik banatzeak pertsona batek duen aldaketarako asmoa eta honetarako dituen aukeren kontzientzia banatzea ekarriko luke, prozesuaren

despolitizazioa ondorioz eta azken batean, ekimena mugatuz (FRIDE, 2006). Hau da, nahiz eta aldaketarako baliabideak garatu, arreta jarri behar zaie ahalduntzea oztopatzen duten mekanismo ezberdinei, zapalduko kolektibo baten parte izateagatik abian direnak. Modu honetan soilik garatu ahalko dira zapalkuntza egoerak irauli ahal izango dituzten politika eta estrategia ezberdinak, bai alderdi indibidualari dagokionez zein kolektiboari. Aipatutako despolitizazioa gainditzeko beraz, boterea eta aldaketaren jatorria eta funtzionamendua ulertzea ezinbestekoa izango da, gaur eguneko gizartearen eta antolakuntza esperientzien ezagutzaren bidez eraldaketa artikulatu ahal izateko, hau azken batean ahalduntze estrategia bilakatzen delarik bere horretan (JASS, 2008).

Aipatutako definiziotik kontuan hartu beharreko beste elementu bat kontrola hartzearen prozesua dugu. Ahalduntzea, pertsona batek bere bizitzarengan eragina duten arloetan erabakiak hartzeko beharrezko gaitasunarekin lotzen du Rowlandsek (FRIDEn aipatua, 2006), kontrola hartzeak, erabaki hauek ahalbidetuko dituen baliabideen bereganatzea suposatzen duelarik. Hau da, ahalduntzea boterea irabazteko prozesua ere bada. Botere hau gauza dadin, ahalduntzearen hiru dimentsio proposatzen ditu Rowlandsek:

1. Pertsonala: “Ni”aren zentzua hartzea eta konfiantza garatzea (FRIDE, 2006). Dimentsio hau, autoestimuekin erabat lotuta dago, edozein aldaketa abiatzeko ezinbesteko duguna; gure buruak munduan duen kokapenaren kontzientzia dakar. Konfiantzari dagokionez, edozein eraldaketa abiatzeko oinarria dugu, ezin baitira estruktura politiko eta sozialetan parte hartzeko opresio mekanismoei aurre egiteko baliabideak sustatu norbere buruarenganako konfiantza garatu gabe. Beraz, dimentsio pertsonala, barrutiko indarrekin lotuta dagoen heinean, ahalduntzerako lehengo premisa dugu, gainontzekoak garatzeko baldintza.
2. Erlazionala: Harreman baten barnean, negoziatzeko eta eragiteko gaitasuna (FRIDE, 2006). Honek, norberaren nahi eta interesak defendatzeko gaitasunari erreferentzia egiten dio, besteenak ere errespetatuz eta hortaz, adostasunera heltzeko gaitasunari ere. Beste alde batetik, besteek inposatutako eta norbere ongizate edota interesen kontra egiten duten eskakizunak alboratzearekin ere lotuta dago.

3. Kolektiboa: Elkarrekiko lankidetzaren eragin zabala lortzeko (FRIDE, 2006). Baztertutako kolektiboen barneko aliantza eta saretzearen bidez, botere harremanak eta zapalkuntza mekanismoak iraultzeko estrategiak abiatuz. Honek, zapaldutako kolektiboen errealitateari so eginez, bizitza garapena, bere zentzu zabalenean, mugatzen eta baldintzatzen duen inposaketa mekanismoei kontra egitea suposatuko luke. Beraz, dimentsio pertsonala psikearekin lotuta egonda, analisi soziopolitikotik abiatutako opresio dinamiken identifikazioa dakar, dimentsio kolektiboaren bidez hau borrokatzeko tresna eta baliabideak garatu arte.

Ahalduntzea beraz, giza eskubide eta justizia sozialarekin lotu daiteke, emandako definizioaren garrantzizko elementu gisa kokatuz hau ere. Zapalkuntza harremanen bidez egituratutako gizartea eraldatzeko gaitasun eta ekimena delarik. Hau, ezberdina izango da pertsonaren arabera, bakoitzaren esperientziak, interes eta erritmoek definituko baitute prozesua, honenbestez aldakorra izango da momentu eta testuinguruaren arabera norbanakoek euren behar eta interesen inguruan duten pertzepzioa aldatu daitekeelako (Murguialday, 2013). Horregatik dugu hau, gizarte hezitzaile gisa helburu eta ekinbide garrantzizkoenetakoa; erabaki hartze espazioetatik kanpo dauden pertsonak hauetan barnebil daitezzen sustatuz, estruktura politiko eta baliabideen banaketaren kontrolean sarbidea bermatzeko.

1.2. Boterea eta parte-hartzea estrategia askatzaile gisa

Baliabideen eta norberaren buruaren gaineko kontrola, boterearekin elkarrekintzan dago. Boterea, “dinamikoa, multidimentsionala, harreman interpersonean oinarritua, testuinguruaren, zirkunstantzien eta interesen arabera aldakorra da. Bere adierazpen eta formak, dominazio eta erresistentziatik, kolaborazio eta eraldaketarantz doaz” (JASS, 2008, 5.or). Hori dela eta, boterea fenomeno zurrun eta estatiko gisa ulertu beharrean, honek izan ditzakeen forma eta jatorri ezberdinak analizatzea ezinbestekoa izango da justizia soziala bilatzeko. Rowlandsek (FRIDEn aipatua, 2006) honen harira, boterea positiboa edota negatiboa izan daitekeela iritzirik, honako sailkapen hau egiten du:

1. *“Zerbaiten gaineko boterea”*: zero baturako jokoak, harreman batean, batek boterea bereganatzea besteak galtzea suposatzen du, opresio dinamika dakarrelarik.
2. *“Zerbaitetarako boterea”*: Beste pertsona batzuen jarduerak indartzeko edota dinamizatzeko gaitasuna zapalkuntzarik gabe.
3. *“Norbaitekin partekatutako boterea”*: Talde batek erantzun kolektiboa ematen dionean duen arazo bati.
4. *“Barne boterea”*: Bakoitzak norbere buruarekiko garatzen duen konfiantza; autoestimuekin guztiz lotuta dagoen boterea da; besteen botereari uko egitearen gaitasuna dakar hau norberak nahi duenaren kontra doanean.

Rowlandsek (FRIDEn aipatua, 2006) egiten duen sailkapen hau oinarri gisa hartuta, ahalduntzea eta hau sustatzeko prozesu parte-hartzaileak abiatzeko, botere positiboak kontsideratzen direnak bultzatu beharko dira. Modu honetan, ahalduntzea, pertsona bat kolektibo zapaldu baten parte den heinean, bere menpekotasun egoeraren jakitun egitetik igarotzen da, bere bizitzaren inguruan erabakitzeke antolaketa autonomoa garatuz eta azkenik, harremanak, euren eskubideak mugatzen edota ukatzen dituzten eta menpekotasuna birproduzitzen duten erakunde eta estrukturak iraultzeko eta interesak identifikatzeko mobilizazio gaitasunaren garapena landuz (Marcos de la Pisa, 2012).

Hau ikusita, botere positiboak sustatzearekin batera, negatiboak ulertu eta identifikatzea ezinbestekoa izango da, hauek abian dauden heinean ezin baitira sortzen dituzten botere-harremanen ondoriozko diskriminazio egoerak ukatu. Hala ere, honekin batera botere forma positiboak bultzatzean dago eragin sozialerako eta ahalduntzerako gakoa, iturri askatzaile gisa. Aipatutako prozesuan beti ere, indibidualtasunetik baino, kolektibitateetik lantzeko apustuaren beharra agerikoa da. Izan ere, menpekotasun egoera ezberdinak partekatzen dituzten pertsonen elkarrekiko babesaren bidez, bidean aurrera egiteko indarrak aurki daitezke, ezberdintasunei baino, partekatzen den horri so eginez.

JASSEk (2008) azpimarratzen duen bezala, kolaborazio, babes eta elkartasunak ezberdintasunen artean zubiak eraiki ditzake, sortzen diren gatazkak identifikatuz eta hauek murrizteko bideak bilatuz helburu handiagoak lortzeko. Soilik honen bidez

antolatu ahalko dira beraz eraldaketa estrukturalak abiatuko dituzten mobilizaziorako estrategiak. Honenbestez, ahalduntzea, ingeles jatorria duen hitza izanik “*empowerment*”, boterea irabazteko prozesu gisa ulertu dezakegu; hau da, boterea ez zapalkuntza moduan ulertuta, baizik eta hazkuntzarako eta eraldaketarako aukerak ahalbidetzen dituen prozesu gisa.

Shulerrek (De Leónen aipatua, 1999) bere aldetik, prozesu hau eman dadin beharrezkoak diren baldintzak zehazten ditu:

- Segurtasun eta etorkizun begirada
- Soldata
- Esparru publikoan parte-hartzeko gaitasuna
- Etxebizitzan erabakiak hartzeko boterea
- Familiatik kanpoko taldeetan parte hartzea eta elkartasun taldeen erabilpena informazio eta babes baliabide gisa
- Mugikortasuna eta ikusgarritasuna komunitatean

Hau kontuan hartuta beraz, abiatutako edozein esku-hartze modu holistikoan gara dadin baldintza hauek kontuan hartu beharko dira, alor hauek guztiei helduz. Hauetan ere, bi perspektiba, edota ekimenerako esparru ditugu: indibiduala eta kolektiboa. Plano pertsonalari dagokionez, gaitasun ezberdinen, autoestimua eta honi lotutako konfiantzaren garapena dira landu beharreko alderdiak, gerora eragitea eta parte-hartze soziala ahalbidetuko dutenak. Hala ere, ezin dira ukatu baldintza hauek ziurtatzeko dauden mugak, gehienak ez baitaude norbanakoaren menpe baizik eta indar soziopolitikoetan errotuta. Horregatik dira, esparru kolektiboari dagozkion parte-hartze soziala eta saretzea horren premiazkoak, hauek izango baitira eraldaketa bultzatu eta presioa eragingo dutenak erroko eraldaketa ahalbidetzeko.

Aipatutakoa bereziki azpimarratzekoa da dagokigun gaian, Gizarte Hezkuntzaren esparruan historikoki nagusitu den ikuspegia izan baita hau, errealitatearen azterketa sakon eta estrukturala alboratu duena eta asistentzialismoaren bidezko esku-hartze isolatuak diseinatu eta aurrera eramane dituenak. Horrela, zaurgarritasun egoeran dagoen

pertsona, zerbitzuen erabiltzaile soil gisa ulertzen da. Bere egoeraren pertzepzio patologizatua nagusituz, bera izango balitz bere egoeraren erantzule (bakarra), eta beraz, aldaketaren erantzule bakarra (Marcos de la Pisa, 2012).

Horregatik, parte-hartzea ahalduntzerako gako gisa ulertzen bada, edozein programa edota proiektutan, hau modu egokian susta dadin hainbat gako izan beharko ditugu kontuan. Giménezek (Marcos de la Pisan aipatua, 2012) dioenez, “parte hartzea eragitea da, inplikatzeko, subjektuak eta taldeak elkarlotzen ditu. Koeragile, kopartehartzaile, koerantzule”. Hau ikusita, Gizarte Hezkuntzaren esparrutik gure kasuan, edota prozesu askatzaileak abiatuko dituen edozein elkarte zein gizarte kolektibotik ahalduntzearen erraztea edota sustapenari laguntzeko tresnak martxan jarri beharko dira, kasu honetan emakumeen ahotsak, interes eta beharrak entzuteko espazioak sortuz eta metodologia parte-hartzaileak erabiliz (Murguialday, 2013). Dagokigun gaiari dagokionez, prozesu hauek beti ere sexu langileen protagonismotik landu beharko dira, profesionalen edota entitateetako eragileen zuzendaritza autoritariorik gabe, erritmo ezberdinak ulertuz eta errespetatuz.

Ildo honetatik doazen esku-hartzeek testuinguru lokalari ematen diote garrantzia, estrategia ezberdinak gertuko esparruan (auzoa edo herria) dauden eragile ezberdinekin koordinazio lanak garatuz. Hauetan, esan bezala, egoeraren eraldaketa bilatzen da kontzientziatzea, pentsamendu kritikoa eta eragileen parte-hartze aktiboaren bidez, garapen integrala bultzatuz (Morata, 2014). Lanketa hau gizarte erantzukizunetik gara dadin, erakunde publikoen babesa eta inplikazioa ezinbestekoa izango da profesionalen eta eragileen elkarlanarekin batera. Modu honetan, eta koordinazio egoki baten bidez esfortzuak batuko dira emaitzak biderkatuz. Izan ere, nahiz eta eragite esparru jakin batean esku-hartzen den, helburua kolaborazio dinamikak gizarte osora zabaltzea izango da, gizarte talde eta pertsonen arteko elkartasun eta garapen harremanak sustatuz sarete soziala indartzeko.

Beraz ideia honek, lehen aipatutako eredu indibidualista eta asistentziala gainditzen du begirada estrukturala modu transbertsanean txertatuz eta honekiko koherentziaz lanketa kolektibo eta horizontala plazaratuz. Horretarako, Migallón Sanzek (Marcos de la Pisan aipatua, 2012), parte-hartzearen hiru printzipio planteatzen ditu:

1. Pertsonen parte-hartze errealak: *ez izan itundua, ituntzaile baizik*¹.
2. Parte-hartzea giza gaitasunen bultzatzaile gisa.
3. Sakontze demokratikoa: parte-hartzeak gizartearen demokratizazioan eragin.

Argia da beraz, horrelako prozesuak bultzatzeak helburuen lorpenean duen eragin biderkatzailea, justizia soziala helmuga bada, pertsona ororen subjektibitatea onartzea izango delarik gizarte eraldaketa ahalbidetuko duen oinarrizko premisa. Definitutako hiru printzipio hauetan, bereziki azpimarratu beharreko ideia dugu “*ez izan itundua, ituntzaile baizik*” delakoa. Ohikoa da, zaurgarritasun egoeran dauden kolektiboaren ongizatearen izenean erabakiak hartzea, programak diseinatzea eta eztabaidak plazaratzea kolektibo horren pertsonen hitza entzun eta errespetatu gabe; hau da, esku-hartzeen hartzaile gisa identifikatuz eta ez hauen subjektu eta eragile aktibo gisa, azken hau gako honek proposatzen duena izanik. Izan ere, parte-hartzea posible izan dadin, norbera parte sentitu behar da (Marcos de la Pisa, 2012). Hau da, bi noranzkotan aritzen da parte-hartzea, alde batetik, horretan murgilduko den edo murgildu nahi den pertsonaren interesa eta ekimena baina baita ere espazio horren parte direnen jarrera proaktiboaren bidez. Izan ere, eragile bakoitzak jokatzen duen rolak zuzeneko eragina izango du alde bakoitzaren agentzian. Agentziaz ari garenean, “norbere helmuga propioak definitzeko eta hauek lortzeko pertsona batek duen jarduteko gaitasuna” (Murguialday, 2013, 25.or.) dela esan dezakegu. Horrela izanik, botere-harremanak hein batean ekiditeko eta aipatutako agentzia indartzeko konfiantzazko esparru horizontalak ahalbidetu beharko dira. Modu honetan, balizko kide moduan identifikatuz pertsona edota kolektiboa, dituen gaitasunak onartu eta elkarrekin eraikitzeko eta eraldatzeko jarrera hartu beharko da. Honek ez du esan nahi hala ere, zapalduetako kolektiboak, gizartearen onspenaren zain egon behar direnik prozesu sozialetan parte hartzeko; are gehiago, espazio publikoak okupatzearen eta hauetaz jabe egitearen beharra ageria da. Honekin esan nahi dena, ahalduntzearen eta inklusioaren erantzukizuna gizarte osoarena dela da, eta ez soilik kolektibo zapalduena. Hori dela eta, espazio politikoen tipologia

¹ Egilearen itzulpen askea, zentzua galtzen duenez gero hona hemen jatorrizko aipamena gazteleraz: “No ser pactadas, sino pactantes”.

aztertzea ezinbestekoa da hauetan eragile bakoitzak izango duen rola eta erabakitze gaitasunari erreparatu ahal izateko. JASSek (2008), honelakoak ezberdintzen ditu:

1. Espazio itxiak: Erabakiak elitearen talde txiki batek hartzen ditu, hiritarren ez parte-hartze ez presentziarik gabe.
2. Eskatutako espazioak: Gizarte zibilak, honengan eragina duten gaien inguruan negoziatzeko espazio itxien irekiera eskatzen duenean.
3. Espazio autonomoak: Gizarte taldeek, euren agendak, ezagutzak eta elkartasuna garatzeko espazio propioak zabaltzen dituztenean, korporazio edota gobernuaren inongo interferentzia eta kontrolik gabe.
4. Gonbitezko espazioak: Erakunde publikoek, gizarte zibilaren eragile jakin batzuen parte-hartzea ahalbidetzeko espazioak zabaltzen dituztenean. Talde hauek orokorrean Gobernu Kanpoko Erakunde handietatik datoz eta irekiera hau gizarte presioaren ondorio izaten da. Hala ere, kontsulta politiko izaera duten espazio hauek, instituzio ofizialek kontrolatzen dituzte, orohar aldaketarako edota negoziatorako prest ez daudenak. Espazio hauek, eragiteko eta sareak eratzeko aukera suposatu dezaketen arren, orokorrean ez daukate justizia sozialarekin lotutako gaien inguruan epe luzeko ondoriorik. Modu honetan, espazio hauen arrisku nabariena, status quoa legitimatu eta gizartearen energia eta baliabideak honetara bideratzea izan daiteke.

Eragin sozialeko espazio politiko ezberdinen jatorria ulertzea ezinbestekoa dugu beraz, eragiteko dauden aukerak eta mugak ezagutu ahal izateko, eta ondorioz, honen arabera koherentziaz, arduraz eta estrategiaz jokatu ahal izateko. Nahiz eta eskatutako zein gonbitezko espazioak gizarte kolektiboentzako tresna baliagarriak izan daitezkeen ezin dira hauetara mugatu, benetako eraikuntza, garapena eta eraldaketa espazio autonomoetan sortutako saretetik etorriko baita. Hauetan topa dezakegu beraz ahalduntze indibidual zein kolektiborako gakoak, gobernu zein erakundearen interes edota mugetatik haratago eraldaketarako pausuak emanez (JASS, 2008).

Aipatutako saretze eta aliantzak kontzientzia kritikoa garatu ahala posible izango dira, honek ahalbidetuko baitu gizarte problematika ezberdinen jatorriaren eta honetan

eragina duten faktore eta indar soziopolitikoaren ulermena. Identifikazio honekin batera, opresio mekanismoei aurre egiteko, indarrak batzearen beharra agerian geratuko da. Horrela, erantzunkidetasunaren zentzua bereganatzerakoan, komunitate solidario eta inklusiboak eraikitzeke pausuak eman ahal izango dira (Marcos de la Pisa, 2012), ahalduntze kolektiboak ahalbidetuz. Gizarte heteropatriarkalaren eraginek zuzenean zeharkatzen eta definitzen duten kolektibo batez ari garela, sexu langileena hain zuzen, eta honen gehiengoa emakumez osaturik egonda, genero-harremani bereziko arreta jarri beharko diegu, honen arabera aztertuz kolektiboaren errealitatea.

Aipatutako aliantza hauek izan ere ohikoak izan dira emakumeen artean, feminitateari lotuta daudelarik komunitatearen garapena eta besteekiko harreman eta loturak. Balio eta eraikuntza zein erresistentzia modu hauek gutxietsita egon dira historian zehar, maskulinitate tradizionalarekin lotutako balioak izan baitira goraiatuak (De León, 1999). Hala nola, autoprodukzioa, kontrola, autonomia etab. Hauek, “beharrezkoak dira ahalduntzea gauza dadin baina aukeratzeko askatasuna beharrezkoa da ere, beraz, euren autonomia garatu ezin dutenek komunitatean aurkitzen dute indarra eta ez indibidualismoan” (De León, 1999, 191.or).

Aliantzetan aurkitzen dute askok aurrera egiteko indarra. Gizarte zerbitzu zein dinamika sozialetatik beraz ahalduntze kolektiboak sustatu beharra dago, ekiteko dinamika ezberdinei balioa emanik eta hazkuntza pertsonala kolektibitateetik landuz. Ikuspegi feminista beraz, diseinu, aurre-plangintza eta dinamika orotan txertatu beharko da, ezingo baita errealitatearen diagnosi fidagarri eta osoa garatu gizartearen baitan dauden genero zapalkuntzak kontuan hartu gabe. De León-ek (1999) ahalduntzearen osagaiak plazaratzen ditu:

- Kognitiboa: Zapaldutako kolektiboak bere zapalkuntza egoeraren eta honen ezaugarri zein mekanismoen kontzientzia izatea.
- Psikologikoa: Zapaldutako kolektiboak ahalduntze prozesuan garatzen dituen sentimenduak bai eta aldaketarako egiten dituen ahaleginek arrakastarako aukerak dituztela sentitzea.
- Politikoa: Ingurua politiko eta sozialki analizatzeko gaitasuna bai eta eraldaketa sozialak antolatu eta mobilizatzeko gaitasuna.

Ahalduntzeak beraz, opresio dinamiken ulermena dakar, hauek norbere bizitzan duten eraginaz kontziente izanik eta horretarako martxan dauden mekanismo ezberdinen identifikazioa posible eginez. Esan bezala, alderdi psikologiko / emozionala ere badu, eta hortaz autoestimua zeharo lotuta dagoen inteligentzia emozionala garatzea gako garrantzitsua da ere; bai prozesuan zehar norbanakoak bizi dituen sentimendu zein emozioak identifikatu eta ulertu ahal izateko, zein hauek gerora, kudeatzen ikasteko. Norberarekin ondo sentiaraztea izango da beraz, osagai politikoan aipatzen den eraldaketa sozialak antolatu eta mobilizatzeko indar eta kemena ahalbidetuko duena, ongizate pertsonala, kolektiboarekin zeharo lotuta baitago. Honetan ere badu praktika feministak ekarpena, antolakuntza politiko eta sozialaren aldeko apustua bai baina norbanakoaren egoera pertsonala errespetatuz eta honi garrantzia emanez, alderdi emozionala ere zainduz. Beraz, emakumearen ahalduntzea, genero perspektibatik egin behar da, Wieringak azipimarratzen duenez (FRIDEn aipatua, 2006) hura prozesu politiko askatzaile gisa ulertuz; kontzeptu honek munduaren ulermen feminista baten bidezko eraldaketa soziala bultzatzeko erabiltzen bada soilik izango duelarik zentzua.

Ahalduntzea autoestimua zeharo lotzen duten autoreen artean Marcela Lagarde dugu, eta honela definitzen du: “Autoestimua, pertsona bakoitzak bizi dituen bizi praktiken eta esperientzia subjektiboen multzoa da” (Marcos de la Pisan aipatua, 2012, 26.or). Eta honen barnean bi dimentsio zehazten ditu. Alde batetik, dimentsio subjektibo intelektuala; honetan, pentsamenduak, ezagutzak, zalantzak, hausnarketak, interpretazioak aurkitzen dira eta munduaren eta bizitzaren ikusmira zehatza definitzen dute. Bestetik, Lagardek dimentsio subjektibo afektiboan, norberaren historian bizitako emozioak, afektuak eta desirak barnebiltzen ditu; norberarengan eragina izan duten gertaeren harira sortutakoak, bai eta bizi izandako eta amestutako esperientziak ere.

Gizarte Hezkuntzaren ekimenak beraz erreparatu egin behar dio autoestimua lanketari, honen barnean dauden dimentsio ezberdinak eta hauek baldintzatzen dituzten faktoreak kontuan harturik. Esku-hartze hauek beti ere, paradigma aldaketa baten barnean kokatu behar dira zeinetan baztertutako kolektiboa erdigunean jarriko den parte-hartze dinamika sustatuz, estrategia eta garapen politikoak formulatuz programaren erabaki hartzean bai eta ebaluazioan ere (FRIDE, 2006); hau da, parte-hartzea ez da mugatuko praktika jakin batzuetara, alegia, esku-hartze osoa zeharkatuko

duen oinarrizko dinamika izan beharko du. Izan ere, perspektiba honetatik garatutako esku-hartze ororen funtsa eraldaketa pertsonala zein soziala izango da gizarte talde eta pertsona guztiek eskubide berdinetara sarbidea izan dezaten, justizia sozialaren logikaren barnean. Hau da, hiritartasunaren kontzeptua gizarte osoko pertsona guztietara zabalduz. Honetan, ongizate estatuaren ondasun eta ezaugarriez gozatzeko aukera planteatzen da, kontzeptu honen barnean dauden pertsona guztiak, “hiritarrak”, komunitatearen barnean berdinak izango direlakoaren ideia nagusitzen da (Marcos de la Pisan, 2012). Gizarte Hezkuntzatik hala ere, interesgarria litzateke kontzeptu hau birpentsatzea, gizartean eta komunitatean eragiteko gaitasun eta eskubide gisa ulertuz eta honen eragile aktiboaren aitortza emanik.

Hiritartasuna, enpleguarekin estuki lotuta dago, ezinbesteko premisa izanik hiritar estatusa, modu agerikoan behintzat, lortzeko. Honek, balio bikoitza du gure gizartean; ondasun materialetara sarbidea ahalbidetu eta estatus soziala ematen baitu (Marcos de la Pisa, 2012). Estatus hau, ezberdina izango da ere enplegu edota lan motaren arabera, horietako askok aitortpena eta errekonozimendua jasotzen ez dutelarik. Honek hainbat galdera edota hausnarketa plazaratzen ditu Gizarte Hezkuntzaren esparruan; alde batetik, zer nolako esku-hartzea bultzatu beharko den kolektibo batek jasaten duen estigmaren iturria burutzen duen lanarekin lotuta badago. Horien artean prostituzioa izanik adierazgarriena, estatus sozial positiboa baizik, bazterketa egoera areagotzen duen faktorea izanik. Bestetik, hiritartasunaren definizio honen izaera baztertzaila zalantzan jartzen duena, gizartearen arlo ekonomiko produktiboarekin lotuta egoteagatik eskubide guztien aitortpena eta ez gizarteari modu ezberdinetan egiten zaion ekarpenagatik.

1.3. Prostituzioa eta estigma: bazterketaren binomioa

Aurreko puntuetan aipatu denez, gaur egungo estatuetan hiritar estatusa lortzea enpleguarekin estuki lotuta dago, baina beti ere gizarteak normalizat eta egokitzen kontsideratzen dituen enpleguak badira, nahiz eta hauen artean hierarkiak ere badauden. Prostituzioa, arestian esan bezala, normatibotik aldentzen den lana da eta beraz parte-hartze sozial eskasa eta errekonozimendu eza, gizarte deslegitimazio gogorarekin batera suposatzen duena. Izan ere, enplegua gizarte integratzaile bidea badugu, prostitutei langile izaera ukatzerakoan, hiritar estatusa ere ukatzen zaie (Montero eta

Zabala, 2006). Beraz, bazterketa egoera hau definitzen duen konplexutasuna, honetan elkarrekintzan dauden faktore ezberdinek irudikatzen dute: generoa, estatus sozioekonomikoa eta estigma batik bat.

Estigmari dagokionez, pertsona edota kolektibo batek duen ezaugarri baten (fisikoa, psikologikoa, ekonomikoa, kulturala edota soziala) balorazio negatiboa, testuinguru sozial jakin batean partekatua dena, eta elkarrekintzaren ekiditean datzan produktu soziala da (Brown, 1998). Gizartearen talde hegemonikoak kolektibo jakin batzueganako azaleratzen duen jarrera da, inkontzientea askotan eta aurreiritziekin zeharo lotutakoa. Estigmatizazio prozesua, dinamikoa da, testuinguruari egokitutakoa eta honekiko garatzen diren jarrera eta erantzunak bazterketa sozialaren aurrekaritzat har daitezke. Beraz, ezaugarri bat estigmatizatzailea dela esango dugu, estereotipo negatibo baten eraikuntza sozialaren bidez ebaluazio negatibo batekin lotzen denean; interpretazio kolektibo baten ondorioz. Horrela, “estigmak bazterketa soziala dakar, emakumeak isolatzen dituen eta hortaz, diskriminazioa areagotzen du euren lan baldintzen hobekuntza eragotziz” (Montero eta Zabala, 2006, 102.or.).

Beraz, estigma bilakatzen da diskriminazioaren eta honek suposatzen duen bazterketa sozialaren eragile. Estigmak suposatzen duen banaketa sozialaren ondorioz, diskriminatua izan den kolektiboko pertsonen ongizatean eragin negatiboak dauzka; hala nola, autoestimu baxua, estres egoerak, bizi-larritasuna etab. Horrela izanik, sexu langileek paira ditzaketen aipatutako egoerak ez daude orokorrean euren lanaren jatorriarekin lotuta baizik eta hura garatzen duten baldintza sozialekin eta jasaten duten gaitzespen sozialekin (Genaro, 2007). Honenbestez, estigma horri heldu beharko zaio batez ere sexu langileen zaurgarritasuna aztertzerakoan eta honi aurre egiteko erantzunak artikulatzerakoan.

Baina nondik eratorria da kolektibo honek bizi duen estigma? Sexu langileak emakume gisa gizarte heteropatriarkalean ezartzen zaizkien roletatik “alaba, emazte, etxeko langile eta ama on” (Juliano, 2005, 81.or.) aldentzen direnean jasaten dituzte presio sozio-estrukturalak estigmaren bidez; honek kontrol mekanismo gisa funtzionatzen duelarik. Are gehiago, “puta” hitzak, sexu langileen bizitzaren esparru guztiak zeharkatzen ditu, ez baita bateragarri ikusten hala nola, prostituzioan lan egitea eta ama “on” izatea, honek eguneroko bizitzaren garapenean suposatzen duen zama eta

oztopoekin batera. Honek, gizarteak kolektibo hau estigmatizatzearekin batera, sexu langileek ere estigma hau barneratzea dakar askotan. Izan ere, Julianok (Daichen aipatua, 2012) hurrengo ideia azpimarratzen du, “Prostituzioa, sozialki eraikitako estigmak emakumeen autonomiaren kontra egiten duen estrategia patriarkal gisa funtzionatzen duen sistema da”, honenbestez sexu langileen agentziaren alde egingo duen edozein prozesu askatzailek estigma hori borrokatu beharko du emakumeak subjektu gisa aitortu daitezzen.

Estigma hau, gizarteak alboratzen duen horrekiko bazterketa garatzeaz haratago, lan pedagogiko gisa aritzen da gainontzeko emakumeekiko, hauek sexu langileak izateko aukeratik aldenduz, zuzentzat hartutako mugen kanpotik euren sexualitatea erabiltzeak dakarren desbalorizazioa dela eta (Juliano, 2005). Desbalorizazio honek, gizartearen gaitzespenaz haratago, gizaki diren heinean zor zaizkien eskubideen ukapena dakar, babesgabe geratzen direlarik. Izan ere, ideia hegemonikoen arabera, emakumeak “on” eta “txar” gisa sailkatzen dituenak, emakume “txar” izatea aukeratu duten horiek ez dute inolako babes zein errespeturik merezi eta hortaz, erasotuak izatea aukeratutako horren ondorio logiko bihurtzen da (Garaizabal, 2008). Horregatik dugu estigmaren faktorea horren adierazgarri prostituzioaren gaian, honetan aritzen diren langileen bizitzak batez ere baina gainontzeko emakumeenak ere, hauengan duen lan pedagogikoa dela eta, zeharo zeharkatu eta baldintzatzen dituen fenomenoak baita.

Sexu langileekiko estigma hau definitzen duen iruditegi kolektiboak hiru identitate nagusi atxikitzen dizkie (Garaizabal, 2008); lehenik eta behin, gobernu eta instituzioetatik delitugile gisa ikusten dituenak. Honen bidez, hirietako segurtasun ezaren sortzailatzat hartzen dira eta beraz kriminalizatzen da bai jarduera zein langileak, hura kontrolatzera ekiten delarik ordena publikoaren arazo gisa ikusiagatik. Emandako bigarren identitatea, sektore kontserbadoreenetatik datorrena da, emakume bizioso gisa ikusten dituenak emakumeari tradizionalki ezarritako roletatik urruntzetatik. Hala ere, kasu honetan moral bikoitza agertzen da, prostituzioa gizonezkoen pribilegio gisa onartzen baita baina, era berean, horretan aritzen diren emakumeak zigortzen baitira. Hori dela eta, helburu nagusia prostituzioa ezkutuan gara dadin bilakatzen da. Azkenik, feminismoaren korrante abolizionistatik eratorrikoa gendake identitate hau,

zeinen bidez garrantzizkoena haiek salbatzea litzatekeen, agentzia ukatzen dien erabakitze gaitasunik gabeko biktima gisa ikusten dituelarik.

Identitate hauei aurre egiteko, hainbat sexu langileek antolatzeari ekin diote euren aldarriak, errealitatea eta salaketak gizarteratzeko, bai eta subjektu gisa euren ahotsa aldarrikatzeko. Izan ere, haien aburuz ez da prostituzioa euren duintasun pertsonalari eragiten diona baizik eta “errekonozimendu eza, abusu polizialak eta gizarte ikusezintasuna” (Daich, 2012, 81.or.). Hauek osatzen dituzte kolektibo zehatz honek pairatzen duen bazterketaren gako nagusiak eta hauei heldu beharko zaizkie sexu langileen eskubideen alde abiatzen den edozein ekimen edota ahalduntze prozesuan. Izan ere, aipatutako abusu eta eraso ezberdinak emakumeenganako eragiten den biolentziaren adierazpen ezberdinak dira, baina prostitutak eskubide subjektutzat aitortzea ezinbestekoa da hauei aurre egiteko (Montero eta Zabala, 2006).

Sexu langileek ondorioz, beste edozein langilek dituen eskubideak borrokatzen dituzte biktimismoa gaindituz bizi baldintza duinen bila. Aurreko ataletan aipatu denez gero, prozesu parte-hartzaile eta eraldatzaileek suposatzen dute bere horretan gizarteko kolektibo zaurgarrien ahalduntzea bultzatzea. Hauek, honen parte diren pertsonak partekatzen dituzten problematikak gizarteratzea ahalbidetzen dute, aldarri eta errealitate ezberdinak mahai gaineratuz eta ondorioz eztabaida soziala piztuz. Sexu langileek beraz, eztabaida honi egindako ekarpenen artean, behartutako prostituzioaren eta aukeratutakoaren artean ezberdintzeko beharra azpimarratzen dute; horrela ez egitekotan, “haien kabuz antolatutako langileen ahotsa eta agentzia ukatzen baita, haiek pertsona gisa duten duintasuna eskubidedun gizakitzat aitortua izatearekin lotzen dutelarik eta ez sexuaren bidezko lana egitearekin” (Daich, 2012, 80.or).

Azken batean, prostituzioak historikoki suposatu dituen eztabaidetan sartu gabe, emakumeei aukeratzeko askatasuna mugatzeko tresna moduan funtzionatu du. Izan ere, Faithek dioenez (Julianon aipatua, 2005, 81.or.) “la desviación es una construcción social, una categoría peyorativa utilizada para controlar a aquellos/as que desafían el status quo político”. Desbiderapenak, gizartean normatzat hartzen denarekiko aldentzea suposatzen du, gizarte ordenaren aurkako mehatxu gisa hartuagatik gogorki zigortua dena, zuzenki zein sinbolikoki. Sexu langileek beraz, estigma pairatzen duen kolektiboa

osaten duten heinean, biolentzia eredu ezberdinei egin behar diete aurre, biolentzia sinbolikotik, feminizidiora igarota.

Biolentzia sinbolikoak ahalduntzearen oztopatzean eragin handia du erabiltzen dituen ezkutuko mekanismo ezberdinak direla eta, modu agerikoan atzematen ez direnak. Mekanismo hauek, sistemaren normatibitatea errotzea eta birproduzitzea dute helburu. Hauetariko batzuk, aurreiritziak, kondena moralistak eta hizkera protekzionista eta paternalista (Juliano, 2005) dira. Honen bidez, sexu langileek subjektibitate gabeko biktima izaera hartzen dute, bizi proiektu propiorik gabekoak eta euren egoera tamalgarririk salbatuko dituen kanpo esku-hartze baten beharra dutenak. Biktimizazioaren irudi horrek hainbat arrisku suposatzen ditu parte-hartze sozialean, izan ere, gainontzeko kolektiboek, hauen artean gizarte talde kritiko eta kontrahegemonikoek, ez dituzte baliozko kide gisa aitortzen eraikuntza eta eraldaketa soziala antolatzekeo estrategietan.

Aipatutako irudi hau komunikabideek indartzen dute berriz ere biolentzia sinbolikoa gauzatzuz; izan ere, errealitatearen tratamendu distortsionatua zabaltzen dute, sexu langileak sistematikoki engainatutako biktima gisa aurkezterakoan. Emakumeen inguruko problematikek estaldura mugatua dute komunikabide hegemonikoetan eta agertzen direnean tratamendu negatiboa izaten dute, aurreiritzi eta estereotipo ezberdinak indartzen dituztelarik (JASS, 2008). Azken batean, autonomia eta antolakuntza gaitasuna ukatzen diete. Diskurtso honek dakarren dramatismoak, gizartearen isla dena eta honetan ere zabaltzen dena, emakume sexu langileek gainontzeko emakume langileekin problematika antzeko eta berdin asko partekatzen dituztela ezkututzen du (Juliano, 2005).

Agian hau izan da mekanismorik eraginkorrena, gizartearen irudikatze kolektiboak sexu langileak eragile aktibo gisa ukatzerakoan borroka sozial esparruetatik kanpo utzi baititu, egoeraren iraultzea eta honetarako premisa den ahalduntzea erabat urrunduz. Hori dela eta, desmobilizazio eta urruntze sozial egoera honi aurre egiteko, gizartean antolatuta dauden taldeen artean, ezberdintasunetan baino, genero harremanen ondorioz emakume gisa partekatutako problematiketan arreta jartzea estrategia egokia izan daiteke. Izan ere, gure identitatea osaten duten ezaugarri ezberdinak direla medio (sexua, etnia, adina, maila sozioekonomikoa etab.) pribilegio eta opresio ezberdinak bizi

ditzakegu. Gainera batasun honek norbanakoen botereak batuz eraldaketaren eragina biderkatzen du, modu koordinatuan antolatzearen ondorio gisa (Murguialday, 2013). Horrenbestez, eta ideia honi helduz JASSek (2008) zehazten du:

Ezaugarri pertsonalen elkarguneak, intersektzio puntua deritzona, batasun eta elkarren arteko ekimen puntuak identifikatzea ahalbidetzen digu [...] Kontzeptu honek, identitatearen kontzepzio sinplifikatuegiak gaingitzen laguntzen digu – “emakume” edo “langile klase” edo “indigena” – askotan kontuan hartzen edota aipatzen ez diren pribilegio eta menpekotasunen konplexutasuna agerian uzteko. (10. Or.)

Argi geratzen da beraz, mobilizazioa eta honen ondorio izan daitekeen eraldaketa prozesuak artikulatzeko indarrak batzea helburu duen edozein gizarte talde edota mugimenduk kontuan hartu beharreko ideia dela hau. Honetarako beraz, emakumeen edota sexu langileen ahalduntzea lantzen duen edozein kolektibotik, prostituzioan aritzen diren emakumeekiko gerturapena egitea ezinbestekoa litzateke, kolektibo gisa euren antolaketa babestuz, haien esperientziak entzunaz, ukatua izan zaien ahotsa aitortuz, eta azken batean, subjektu sozial gisa gara daitezen ahalbidetuz (Osborne, 2005).

Bazterketa eta estigmari berriro helduz, eta hauek produktu soziala direnez gero, gizarte sektore guztietan dute eragina, tartean erakunde publikoetan. Hauek, berdintasuna sustatu beharrean, babesgabetasun egoera areagotzen dute, biolentzia instituzionala gauzaturik. Prostituzioa legalki aitortua ez dagoenez, honetan aritzen diren langileek ez dute inolako estaldura legalik, gainontzeko lanbide eta langileetatik bazterketa suposatzen duelarik, honek duen konnotazio sozialarekin batera. Jardueraren aitortza legal eza, eta langile guztiak proiektu propiorik gabeko emakume trafikatu eta esplotatu gisa ikusten dituzten eraikuntza mentalen ondorioz, ez dute hiritar gisa arreta jasotzen, baizik eta biktima edota delitugile konplizetat (Juliano, 2005). Egoera hau erakunde polizial eta judizialeetatik haratago, administrazioan, osasunean ere agerikoa da. Proiektu propiorik eta erabakitze gaitasunik gabeko biktima gisa ikusteak, arestian esan bezala, sexu langileak eskubidedun subjektutzat onartzea eta bilakatzea oztopatzen du, diskriminazio eta biolentzia egoera birproduzitzen.

Julianok (2005), babesgabetasun honi aurre egiteko, oinarritzko hiru neurri proposatzen ditu: arreta emakumeek gauzatzea, emakume guztiei zabaltzea arreta etheen zerbitzuak eta tratu txarren telefono zenbakien eraginkortasuna indartzea, tratu txar instituzionalak ere salatu ahal izateko. Neurri hauek modu eraginkorrean aurrera eraman ahal izateko, zerbitzuetako langileek formakuntza jasotzea ezinbestekoa da, irizpide zehatzak jarrai ditzaten, hauen jatorri eta zentzua ulertuz. Neurri zehatzez gain, Osbornek (2005) prostituzioarekin lotutako jardueren despenalizazioa, langileen kontrako egindako abusuen eta erasoen jazarpenaren areagotzea eta prostituzioan aritzen diren emakumeak langile gisa aitortzea proposatzen du. Modu honetan, biolentziari eta biktimizazioari aurre eginez. Neurri eta aldaketa hauek beti ere, sexu langileak protagonista gisa prozesuan parte hartuz eraman beharko dira aurrera. Haiak izanik, euren bizitzetan eragin zuzena izango duten politiken agenda definituko dutenak, eragileen arteko koordinazioaren bidez. Kontzientziazio eta formakuntza kanpainak era berean gizarte osora tresna ezberdinen bidez zabaltzea beharrezkoa da, estigma borrokatzekotan, aipatu bezala gizarte osoarena baita diskriminazioari aurre egiteko erantzukizuna.


Benetako gakoa eta eman beharreko eztabaida beraz, ez da estigmatizatutako talde honen lan aukera morala den edo ez, baizik eta nondik eraikia izan den erabaki gaitasuna ukatzen dien diskurtsoa (Juliano, 2005). Honek, euren eskubideen aitortzan oinarritzko pausua suposatzen du, eztabaida sozialetan eta erabakitze prozesuetan balizko solaskide gisa parte hartzen dutenean ematen dena.

1.4. Laburbilduz

Gizarte Hezkuntzaren esparruan, horretan aritzen diren langileek zaurgarritasun egoeran dauden kolektiboekin harreman zuzena izan dute historian zehar, esparru profesionalaren bidezko harremanetan. Denboraren poderioz, harreman horiek birdefinitzeko saiakera ezberdinak izan dira, asistentzialismoa eta harreman hierarkikoetatik eraikuntza prozesu kolektiboetara jauzia emanik, harreman horizontalak sustatuz eta parte-hartzaileen agentzia eta subjektibitatea aitortuz. Saiakera hauen barnean koka dezakegu azken hamarkadetan indarra hartu duen perspektiba, ahalduntzearena hain zuzen. Ahalduntzea ezinbestean botere-harremanekin zein norbanako eta kolektiboek hauek iraultzeko eta euren bizitzen gainean erabakitze gaitasuna indartzeko garatutako estrategiekin lotu behar dugu (Murguialday, 2013), hau

prozesu askatzaile eta subertsiboa delarik bere horretan. Profesionalen rola beraz, diskriminatutako gizarte taldeei babesa ematean datza, jatorri ezberdinetako baliabideak jarriz euren eskuetan eta elkarren arteko bidea garatuz, batera haziz.

Grafiko 1. Ahalduntze prozesua



Iturria: Norberak egina.

Bide hau beti ere analisi soziopolitiko sakonetik abiatu beharko da, ekimenak edukiz betetzekotan eta epe luzera bazterketa sortzaileak diren estruktural irauli ahal izateko, erroan eraginez. Horregatik dugu horren garrantzitsu, esku-hartze, dinamika eta proiektu oro perspektiba estruktural horretatik garatzea, ekimen isolatuak eta inongo oihartzun sozialik ez dutenak gainditzeko. Estrukturaz eta diskriminazioaz ari garelarik, genero-harremanetara jo behar dugu ezinbestean, hauek pertsona eta kolektibo guztiak zeharkatzen dituen opresio sisteman barnebiltzen direlarik, heteropatriarkatuan hain zuzen. Emakumeak menpekotasun egoeran alboratzen dituen eta sistematikoki modu ezberdinetan erasotzen dituen gizarte antolaketa eredu honek zuzeneko eragina izan du emakumeen agentzian (De León, 1999), esparru publikoetan ematen diren eztabaida sozialetatik at utzi dituenak. Emakume guztiak zeharkatzen dituen opresio hau areagotzen da zenbait kolektiboetan, bazterketa faktore ezberdinekin elkarrekintzan egonagatik, honen adibide dugu prostituzioa. Sexu langileek estigmatizatutako

kolektiboa osatzen dute, euren subjektibitatea ukatua izan dutenak eta erabakitze eta eragin sozialeko esparruetatik kanpo utzi direnak. Estigma hau, sexu langileak gizarteak emakumeei atxikitako roletatik hein batean ateratzeagatik du jatorria eta gainontzeko emakumeekiko mekanismo pedagogiko gisa funtzionatu izan du, euren roletatik irten ez daitezela (Juliano, 2005).

Ahalduntze estrategiak eta saretze eta aliantza dinamikak ditugu honenbestez proposamenik eraldatzaileenak, ekimen isolatuak baino, prozesu askatzaileak izanik, eragin publikoa ahalbidetuz, baztertutako norbanakoak euren bizitzengan eragina duten erabakietan parte-hartzeko aukerak zabalduz eta azken batean botere dinamikak irauliz. Saretzeak gizarte osora zabaltzen den oihartzuna suposatzen du arlo ezberdinetako eragileak batuz helburu orokor baten aldeko borrokan, justizia soziala ardatz izango duen gizarte eraldaketa hain zuzen. Prozesu hauek abiarazteko, kolektiboaren protagonismoa sustatu behar da, parte-hartze horizontal erreala bultzatuz, gizarteko eragile aktiboak izan daitezela, gizaki gisa zor zaizkien eskubide guztien jabe.

2. METODOLOGIA

Behin arlo teorikoa landuta, eta hura praktikarekin uztartzeko, Kasu Azterketa metodologiaren gerturapen bat egin dut. Hau metodologia kualitatiboa da, eta egoera erreal baten analisi intentsibo eta osoa suposatzen du. Honek “ezagutzeko, interpretatzeko, konponbidea aurkitzeko, hipotesiak eratzeko, datuak egiaztatzeko, hausnartzeko, ezagutzak osatzeko, eta batzuetan, konponbidea emateko prozedura alternatiboetan murgiltzeko helburua du” (De Miguel, 2005, 89.or). Metodologia hau egokia suerta daiteke lantzen ari garen gaia dela eta, kasu zehatz eta isolatua izango baita aztertutakoa, lanketa teoriko batetik abiatuta behaketa prozesu batean murgildu garelarik.

Kasu Azterketa metodologia, Yacuzziaren (2005) arabera, bereziki egokia da “nola” eta “zergatik” galderak planteatzen direnean, ikertzaileak gertakarien inguruko kontrol eskasa duenean eta gaia gaurkotasunekoa denean. Kasu honetan, teoriaren bidez landutako ahalduntze prozesuek sexu langileen kolektiboan zer nolako garapena duten autoestimari, kontzientzia kritikoari eta artikulazio estrategiari dagokionez izango dira

behatutako alderdiak. Kasua jadanik diseinatutako eta abiatutako programaren baitakoa da, gaia ere gaurkotasuneko delarik. Honen bidez, aztergai dugun ahalduntze prozesua abian den esperientzia zehatz batean oinarriturik aztertzeko aukera izan dut, marko teorikoan proposatutako ekarpenek errealitatean zer nolako eragina duten behatzeko intentzioarekin.

Horretarako, Gasteizko Sidalava elkarteak (Comisión Ciudadana Antisida de Álava), “Nahikari” prostituzio programaren barnean antolatutako Ahalduntze Taldean (Ahalduntzea: Genero gaietan Formakuntza Tailerrak) parte hartuko dut. Landutako tipologiari dagokionez, Kasu Azterketa behatzaile bakarra izango da, “behaketa parte-hartzailean oinarritzen baita datu bilketa teknika nagusi gisa” (Díaz, Mendoza eta Porras, 2011, 13.or).

Teknika etnografiko honetan, kasuaren azterzailea behatzen duenaren parte da, eta ahalduntze talde honetan eragile aktibo gisa parte hartuko dudanez gero ez naiz kanpoko eragilea izango. Honenbestez, aztergai den kolektiboaren jardueren inguruan ikastera ahalbidetzen du teknika honek, jarduera hauetan parte hartuz eta behatuz (Kawulich, 2005). Gainera, behaketa hau testuinguru naturalean ematen da, hura ikertzaileak aldatzen edota moldatzen ez duelarik bere helburuak betetzeko. Kawulichek (2005), DeWalt eta DeWalten hitzak hartuz dioenez, behaketa parte-hartzaileak beraz, azterketaren baliotasuna areagotzeko balioa du, azterzaileak kasua eta testuinguruaren ulermen hobea izango baitu.

Honen bidez, taldearen funtzionamendua, honen baitan garatutako dinamikak, harremanak etab. islatu ahal izango ditut. Egindako behaketa, jarduera honen inguruko informazioarekin osatuko dut, ahalduntze taldearen helburuak, ildoak, metodologia eta gakoak mahai gaineratzeko. Talde honetan parte-hartzea lan hau burutzeko ardatz nagusia izango da. Izan ere, errealitatera gerturapen zuzena egiteak, teoria eta praktika uztartzearen bidez, alde teorikoan landutakoak praktikan aurrera eramaten saiatzea alde batetik, eta bestetik, errealitatera zein neurritan moldatzen den egiaztatzea ahalbidetuko dit.

Lan honen ardatza sexu langileen parte-hartze sozialaz hausnartzea eta hura bultzatzeko ikuspegi feministatik planteatutako gakoaren inguruko berrikuspina egitea den heinean

beti ere euren ahalduntzea eta agentzia erdigunean jarriz, euren ahotsei garrantzia ematea bilatzen dut. Hori dela eta, talde honetan egiten dituzten ekarpenak oinarri hartuta teknika kualitatiboa den diskurtsoaren analisisiaz baliatuko naiz, paradigma interpretatzailearen barnean kokatzen dena. Hau, hiru alorretan banatuko dut, ahalduntzeak autoestimuan, kontzientzia kritikoan eta kolektiboaren antolaketan izan dituen eraginen analisia egitekotan. Modu askean egindako ekarpen hauek, bi elkarrizketekin osatuko ditut, aztertutako kasu honetan barnebiltzen diren bi profilei helduz: sexu langile batena, eta dinamizatzailearena.

Elkarrizketa, Deslauriersek eta Lópezek (2001) aipatzen dutenaren arabera, ikerketa zientifikoan barnebiltzen den metodoa da, hitzeko komunikazioaren bidez helburu jakin batzuei erantzuteko informazioa biltzea bilatzen duena. Hori dela eta, garatutako elkarrizketak aurre diseinatuta egongo dira, lanaren helburuei jarraituz, aipatutako hiru alorren inguruko informazioa osatzeko intentzioarekin. Teknika hau aurrera eramateko momentuan elkarrizketatuei honen inguruko informazioa emango zaie, elkarrizketaren eta elkarrizketatuen hautapenaren zergatia azalduz. Honekin batera, elkarrizketaren izaera anonimoaren eta lanaren funtzio akademikoaren berri emango zaie (Deslauriers eta López, 2011). Elkarrizketa hauek honenbestez, behaketa partehartzailearen bidez lortu nahi den informazioa osatzea eta zehaztea bilatzen dute, honi erantzungo dioten galderak planteatuz gaia zentratzeko asmoz.

Bai ekarpenak zein elkarrizketak anonimoak izango direnez, hauek identifikatzekotan elkarrizketatuei E1 (sexu langilea) eta E2 (dinamizatzaile) izena emango diet, eta taldeko parte-hartzaileei P1, P2 etab. Kasu azterketa honek beraz, honako helburuak ditu:

Helburu orokorra:

- Sidalavak garatutako Sexu Langileen ahalduntzea bultzatzeko proiektu honek ahalduntzearen ikuspegitik norbanakoan zein kolektiboan dituen ondorioak aztertzea.

Helburu operatiboak:

- Ahalduntze estrategiek parte-hartzaileen autoestimuan eragiten dutela mahai gaineratzea.
- Aurrera eramandako ahalduntze taldeak parte-hartzaileen kontzientzia kritikoaren garapena sustatzen duen behatzea.
- Ahalduntze prozesuaren garapenak kolektiboaren antolaketa eta artikulazio estrategiak ahalbidetzen eta bultzatzen dituztela mahai gaineratzea.

3. LANAREN GARAPENA

3.1. Deskribapen kritikoa

Lanaren garapen praktikoa burutzeko, Gasteizko Sidalava elkarteak (Comisión Ciudadana Antisida de Álava), “Nahikari” prostituzio programaren barnean antolatutako Ahalduntze Taldean (Ahalduntzea: Genero gaietan Formakuntza Tailerrak) murgildu naiz. Esperientzia zehatz honen aukeraketa garatutako marko teorikoaren ildoarekin bat doalako izan da. Jarduera hau ikuspegi feminista argi batetik garatu da, zeinetan emakumeen protagonismoa eta taldearen horizontaltasuna oinarritzko apustua izan diren, langileen subjektibitateari aitortza emanez eta epaiketa moralak eta estigma gainditzea zeharkako gakoak izan direlarik. Honenbestez, esperientzia egokia kontsideratu dut, alderdi teorikoarekin bat egiteagatik.

Talde hau 10-12 bat emakume sexu langileek osatu dute eta 3 ordutako 12 saioetan banatu da formakuntza epea, 16.00retatik 19.00ak arte eta martxotik irailera arte iraungo duena. Taldea egonkorra izan da eta gaian aditua den elkartetik kanpoko pertsona batek dinamizatu du, Nahikari programaren arduradunarekin batera. Gai batzuek lanketa gehiago beharko zutela aurreikusirik, hauetako batzuk 2 edota 3 saiotan landu dira. Saioek, asteazkenetan Gasteizko udalaren Simone de Beauvoir bilera aretoan izan dute leku. Hauetan genero-harremanetan sakontzeko gai ezberdinak landu dira, perspektiba integrala garatzeko emakume gisa pairatutako opresio mekanismoez. Gaiak, hurrengoak izan dira: Sexu Binarismoa: genero rola eta estereotipoak, Indarkeria Matxista, Maitasun Erromantikoa, Amatasunak, Zaintzak, Sexu lana eta Etxeko lana, eta azkenik, Eskubide Sexual eta Erreproduktiboak.

Saioak, Paulo Freireren Hezkuntza Herritarraren metodologiaren bidez eraman dira aurrera. Hau, 1960ko hamarkadan Latino Amerikan sortutako mugimendu pedagogikoa da, helduen hezkuntzaren testuinguruan garatutakoa, Paulo Freireren Zapalduen Pedagogian oinarrituz. Honen bidez, ezagutzaren garapena, parte hartzaileen testuinguru, sentimendu eta jakintzetatik abiatuko da, hauek oinarri hartuta teknika partehartzaileen bidezko hausnarketa kolektiboa sustatuz (González, 2011).

Honenbestez, errealitate soziopolitikoaren inguruko kontzientzia bultzatuko da, bai eta eraiki nahi den gizartearen kontzientzia ere, hau izanik lanketa gaiaren erdigunea. Zapalduetako kolektiboekin lantzeak bizipenetatik abiatzea zentzuz betetzen du. Izan ere, Gonzálezek (2011) Paulo Freire aipatuz dioenez, zeinek, zapalduetako pertsona batek baino hobeto ulertuko du gizarte zapaltzaile baten esanahia? Metodologia honek beraz, opresioen gaineko begirada politiko eta estrukturala bermatzea bilatzen du, bai eta honi erantzuteko estrategia ezberdinen artikulazioa ere.

Hau garatzeko beraz, saioak tailer formatuan landu dira, zeinetan ariketa praktikoak, azalpenak argitzeko Power Pointak eta eztabaidak burutu diren. Aipatutako ariketa praktikoek edukiez hausnartzea edota bizipenen partekatzea bultzatzea helburu izan dute. Sortutako espazioa, formakuntza teorikoaz haratago, bizipen, sentimendu eta iritzi ezberdinak partekatzeko abagunea izan baita, zeinetan norberaren jakintza eta interesetik lan egin den, segurtasun espazioa eraikiz.

Talde honen helburua beraz, parte hartu duten sexu langileek euren artean ezagutzea eta sarea garatzea, genero ikuspegia barneratzea eta gizarte heteropatriarkalak emakumeen bizitzetan dituen eraginez hausnartzea izan da. Honenbestez, Sidalavak, honako bi helburu espezifikoak planteatzen ditu:

- Sexu-genero sistema ulertzeko kontzeptu ezberdinak lantzea garatzen duten lanarekin loturik eta modu honetan bizi duten errealitateari aurre egiteko tresna ezberdinak garatzea.
- Hausnarketaren eta autoestimua lantzearen bidez ahalduntzea ahalbidetzea.

Ildo honetatik jarraituz, sexu langileek euren eskubideen eta aldarrien defentsarako antolaketa propioa artikulatzeko bideak topatzeko aukera zabaldu nahi da. Honekin

batera, euren kezkek edota interesak plazaratzeko eta konfiantzaz mintzatzeko espazioa garatzea bilatu da, elkarren arteko zaintza eta entzutearen bidez. Tailer hauek beraz, ikuspegi feminista eraldatzaile argi batetik garatu dira, epaiketa moralak alde batera utziz. Modu honetan, sexu langileek eskubidedun subjektu gisa duten agentzia aitortu da.

Prozesua ixteko, ebaluazio formatiboa izango da erabilitakoa. Honen bidez, amaierako emaitza kuantitatiboak alboratu eta prozesuari emango zaio garrantzia. Honetarako, parte-hartzaileen gogobetetzea ezagutzeko taldeko ebaluazioa zein ebaluazio indibiduala egingo da. Ebaluazio tresna gisa galdetegiak helaraziko zaizkie taldean aritu diren emakumei. Honekin batera, asistentzia eta taldean parte hartu duten pertsonal teknikoaren oharrak eta behaketa ere kontuan hartuko dira ebaluazioan. Azaldutako ebaluazio formatibo honek, ikuspegi eraikitzailea du datorren urteetara begira hobekuntza egitea bilatzen duen heinean, helburuen betetzea errealitatea bilakatu dadin.

3.2. Diskurtsoaren analisisia

Metodologiaren atalean azaldu bezala, sexu langileen kolektiboaren ahalduntzearen inguruko lanketa teorikoa aberasteko, esperientzia zehatz bat aztergai hartu dugu honekin zirikusi zuzena duten hiru atal banan-banan aztertze asmoz: autoestimua, kontzientzia kritikoa eta artikulazio estrategiak; hauek gizarte eraldaketa bultzatzeko premisa den ahalduntzearen oinarri gisa harturik.

Lehenik eta behin, aztertutako Ahalduntze Talde honek, parte-hartzaileen autoestimuan izandako eragin indibidualei helduko diegu, arestian azaldu denez, gainontzeko estrategiak garatzeko oinarri gisa ulertzen baita hau.

3.2.1. Autoestimuan eraginak

Ahalduntze tailerrek iritziak, hausnarketak eta bizipenak partekatzeko segurtasun gune gisa funtzionatu dute, hauetan emakumeak libre sentitu direlarik askatasunez hitz egiteko. Izan ere, arestian azpimarratu den bezala, ahalduntze prozesuek autoestimuan eta ongizate pertsonalean zuzeneko eragina dute norbere bizitzari eta sentimenduei balioa emateko prozesua bilakatzen direlarik, baita norbere bizitzaren inguruan eta honetan eragiten duten faktoreen inguruan hausnartzekoa ere.

“A mí venir a este grupo me ha ayudado a dejar de sentirme como una piltrafilla, ser más persona, más mujer, aquí estoy yo y no me pisan” (P1).

Taldean parte hartzen duen sexu langile honek azpimarratzen duen bezala, taldeak aurrera jarraitzeko kemena, zapalduak ez izateko edota behintzat pairatzen dituzten zapalkuntzei aurrea hartzeko indarra ematen du. Honek, aurreko ataletan aipatu bezala, ahalduntze prozesuari ekiteko premisa, edota lehenengo pausua suposatzen du. Hau eman dadin, taldea, konfiantzazko eta segurtasun esparru gisa sentitu behar dute, zeinetan ez diren epaituak izango eta euren opresio berdinak pairatzen dituzten beste pertsona batzuekin bizipenak eta sentimenduak partekatuko dituzten.

“Obtenemos nuevas experiencias a través de otras experiencias y entonces así podemos compartir [...] ver de un punto diferente la vida, cómo estamos, en qué situación vivimos, qué quiero para mí” (E1).

Esperientziak elkarbanatzeak, hurbilpen prozesu bat suposatzen du, zeinen bidez komunak zaizkien opresioez hausnartzen den, egoera edota arazo indibidual gisa sentitzen zen hori kolektibo moduan identifikatuz.

“Yo creo que ellas hablando de ellas mismas, de lo que hacen pueden ir generándose inquietudes, pueden ir compartiendo situaciones que les son comunes y a partir de ahí pues transformar las cosas, lo que pasa es que ese es un proceso y es complicado. [...] Es un proceso que debe continuar, es como una semillita ahí puesta que luego tiene que irse avanzando” (E2).

Taldeak beraz, norberak gizartean duen kokapenaz hausnartzeko eta jabetzeko aukera plazaratzen du. Horretarako alegia, ezinbestekoa da, esan den bezala, esperientziak partekatzeko gune hori, segurtasun espazioa kontsideratzea.

“Aquí puedo hablar de mí, puedo sacar lo que siento, me abro, aprendo... me siento libre” (P6).

“Este grupo me ha ayudado en lo personal, para reforzar mi autoestima, para darme cuenta de que todos tenemos derechos y de que todos necesitamos cosas, me ha ayudado también a relacionarme y también a participar” (E1).

Izan ere, norbere egoeraz, sentimenduez, ongizateaz etab. hausnartzea bai eta entzuna sentitzea gako bilakatzen da ahalduntze prozesua abiatzerakoan. Hala ere, emakumeok, eta batez ere gogorki estigmatizatutako kolektibo baten parte direnek zailtasunak topatzen dituzte euren sentimenduak partekatzeko garaian, entzunak izatekoan, eta, azken batean zainduak izatekoan ere:

“No es fácil pensar lo que soy yo, pensar en mi misma, siempre estamos pensando en los demás” (P2).

Emakumeoi atxikitako rolen oinarrian besteeikiko zaintzak garrantzi handia hartzen duenez gero honek, lan karga handiegia suposatzeaz gainera, ongizate propioa alde batera uztea dakar. Horregatik bilakatzen da horren zaila norberak bizitako esperientzia eta sentimenduez hitz egitea. Prozesu hauetan beraz, zailtasun hauek gainditzea bilatzen da, elkarrekiko zaintza eta ongizate pertsonala erdigunean jarritz, arlo honi dagokionez hainbat hobekuntza nabarmenak direlarik.

“En lo que a mí respecta me ha ayudado positivamente porque antes no me atrevía a hablar de esto, para mí era un tabú estaba metida en "Ay que dirán de esto, que dirán de lo otro..." [...] pero ahora lo veo desde un punto de vista diferente, me ha ayudado a comunicarme más, a expresarme, por sentir el apoyo” (E1).

3.2.2. Diskriminazioaren analisiaren bidez, kontzientzia kritikoa garatu

Ahalduntzea prozesu politikoa denez gero, ezinbestekoa bilakatzen da, esperientzien partekatze hori analisi soziopolitikoarekin uztartzea. Modu honetan, ezagutza kolektiboa eraikitzen da, norberak duen jakintza kontzientzia kritikoaren bidez artikulatuz. Hau da, norberaren errealitate eta ezagutzei forma edota egitura emanez. Kontzientzia kritikoa, errealitatearen gaineko begirada politikoa garatu ahala egituratzen da, bizitzaren alderdi guztietan elementu komunak identifikatzerakoan.

“Es como una fusión de la experiencia con la teoría para ponerle nombre a las cosas, entonces es importante el reconocimiento de porqué estamos viviendo discriminación, de porqué las mujeres mueren con el tema de la violencia, ¿no? El porqué de todas estas cosas tiene su base en el análisis de

esa discriminación [...] En la medida en que ellas pueden reconocer las discriminaciones que tienen pues en esa medida pueden luchar por ellas” (E2).

Taldearen dinamizatzailak zehazten duenez, errealitatearen eta opresio mekanismoen analisi kritikoak ahalbidetuko du egoeraren iraultze estrategien garapena. Garrantzitsua da era berean, lanketa teorikoa bakoitzak duen jakintza eta bizi duen errealitatearen bidez abiatzea, arestian aipatutako Hezkuntza Herritarraren bidez, norberak duen ezagutzari balioa emanik:

“Es algo que ellas saben [...] partimos siempre de la experiencia de ellas entonces es simplemente ir poniéndole nombre a algunas cosas [...] Yo creo que es fundamental que todos los grupos, las mujeres en general o los grupos en particular que tienen discriminaciones hagamos una reflexión a partir de la cual salen las luchas por los derechos. Para cambiar la situación, para poder transformar, sino ¿cómo cambias si no eres consciente de lo que vives?” (E2).

Norbere esperientzia abiapuntu gisa hartzeak gainera, kontzeptuen eta gaitegiaren lurreratzea ahalbidetzen du. Izan ere, abstrakziotik errealitatera salto egiten da, lanketa teorikoa bizi dituzten egoeren bidez jorratuz. Honek norberak pairatzen dituen opresio eta diskriminazioei izaera politiko eta soziala ematea dakar, honekin ere subertsioari ateak irekiz.

“A las mujeres nos han enseñado a hacer todo por amor: cuidar, el sexo... en el momento que no lo haces por eso eres una mala mujer. ¡Pues qué vivan las malas mujeres!” (P1).

Ahalduntze tailerra, genero ikuspegitik landu denez kolektiboaren errealitatea oinarri hartuta emakume gisa pairatutako opresioen eta sexu langile gisa bizitako estigmaren bidezko gizartearen azterketari ekin zaio.

“Las mujeres vivimos violencia por el simple hecho de serlo, seamos prostitutas o no” (P5).

Parte-hartzaile honek planteatutako ideia gakoa da generoaren bidezko indarkeria ulertzerako orduan. Izan ere, ikuspegi estrukturala ematen dio emakumeek pairatutako indarkeriari. Honen ulermenak ere, etorkizuneko aliantzak ahalbidetzen ditu, emakume guztiak barnebiltzen baititu indarkeriaren pairatze horretan, hori izanda batzen gaituen oinarritzko faktore komuna.

Aztergai dugun kolektiboari berriz ere helduz, aipatu dugun bezala estigma da hura baldintzatzen eta ezaugarritzen duen gizarte mekanismo nagusienetarikoa. Taldean parte hartu duten sexu langileek estigma indarkeria gisa identifikatu dute, euren jarduna eta bizitza zeharkatzen duen faktoretzat hartuz.

“Nos sentimos violentadas por las miradas de la gente, por cómo nos ve la sociedad, eso también es violencia, pero tienen que entender que es voluntad propia, es un trabajo” (P4).

“Si la sociedad no nos discriminase, ¿nos seguiría sin gustar? [prostituzioa] Es sobre todo por el que dirán” (P3).

Hausnarketa hauek gizarteari interpelazio zuzena suposatzen dute, hau ere identifikatuz euren diskriminazio egoeraren erantzule gisa. Honenbestez, argi geratzen da estigma eta diskriminazio egoerari aurre egiteak alde biko lana dakarrela, hura pairatzen duen kolektiboarekin bai eta gizartearekin ere:

“Tenemos una responsabilidad particular con esto, de informarnos y de primero comenzar respetando la voluntad de las mujeres y escucharles, nunca se les escucha, ¿no?” (E2).

3.2.3. Estigma gainditzeko artikulazio estrategiak garatuz

Talde hau beraz, entzute lanean oinarritzen da, sexu langileei orokorrean onartu ez zaien ahotsa aitortuz eta subjektu politiko gisa eratzeko aurrerapausoa suposatuz. Izan ere, kontzientzia kritikoaren garapena, edozein kolektiboren antolakuntza aurrera eramateko beharrek baldintza da, honen garrantziaz jabetzeak lehenengo pausua suposatzen duelarik.

“El grupo nos hace concientizar de que tenemos que pelear por nuestros derechos también, no estamos solas, y es lo que he aprendido en el grupo, que no estoy sola, que hay personas que están apoyando” (E1).

Elkarrizketatu honek aipatzen duen babes sentimenduak garrantzi berezia hartzen du estigmatizatutako kolektibo baten ahalduntzeari dagokionez. Babes horrek bultzada eta indarra ematen duelako prozesuan aurrera egiteko.

“El estigma es algo que pesa muchísimo, no sé, yo creo que es muy difícil, es complicado. Pero si de alguna manera se puede poner alguna inquietud para que, sobre todo para que ellas vayan tomando conciencia de que no toda la gente que no hacemos trabajo sexual les criminalizamos y les vemos como lo peor, entonces en la medida que ella se vayan empoderando, que puede haber otras personas que les pueden apoyar, que tienen alianzas... es que es súper necesario” (E2).

Aurreko puntuetan ahalduntze prozesua aztertu denean, bai plano pertsonala zein kolektiboaren eragina aipatu dira norbere bizitzaren kontrola hartzeko estrategiak garatzerako orduan. Izan ere, norberak barneratutako estigma oztopo nagusia da antolakuntza eta eraldatzea bultzatzerako orduan.

“Luego también está la creencia de ¿cómo vas a luchar por algo que tú no consideras que es legítimo? O que si tú crees que estás haciendo algo malo y que ser prostituta es lo peor del mundo y que eres una mujer terrible, pues ¿cómo vas a salir a la calle a decirle al resto de la gente que exiges derechos?” (E2).

Lehenago esan bezala, norberak barneratutako estigma eta gizartearen aurreiritzien inguruko lanketa garatu behar da edozein ahalduntze prozesu abiatzerakoan geroago kolektiboaren aldarriak gizartera plazaratzeko. Honetarako beharrezkoak diren barne indarrak garatzeko hausnarketa kolektiboa ezinbestekoa da, opresio mekanismo ezberdinak identifikatzeko eta hauei aurre egiteko erantzunak antolatzeke.

“¿Que lo que hacemos no es trabajo? ¿Entonces qué es? Pues tendremos que salir a la calle para explicar a la gente que es un trabajo más, tienen que verlo” (P2).

Behin lanketa pertsonal hori eginda, ahalduntze prozesu kolektibo baten arrakasta bermatzeko gakoetariko bat prozesu hau diskriminazio egoera bizi duten gainontzeko pertsonen zabaltzeko ahaleginetan datza. Modu honetan, saretzeari ekingo zaio, eragina biderkatuz eta ekintza isolatua izatea gaindituz.

“Estas reuniones me dan ánimo para decirles a otras chicas que no están solas [...] que entre todas podemos unirnos y salir adelante, y que ¡a la mierda lo que les digan las demás! y nunca dejarse pisotear por nadie” (E1).

Beraz, ahalduntze taldeak, prozesu honen lehenengo pausua suposatzen du, elkar ezagutzekoa; bai sexu langileen artean esperientziak eta bizipenak partekatuz, zein gizarteko beste eragile batzuekin babesa sentitzeko. Bai eta azken hauek sexu langileen errealitatea eta aldarriak hobeto ezagutzeko aukera izateko ere.

“La gente siempre hablar por ti, todo el mundo habla hasta de lo que no sabe. Ahora estamos hablando nosotras y espero que nos escuchen poco a poco. [...] Yo pienso que esto es un inicio, es un inicio lento, pienso que poquito a poco vamos a ir logrando lo que queremos, todo tiene su proceso, y si persistes vas a avanzar. Es como el papel de periódico, una hoja es muy fácil cortarla, pero si juntas muchas llega un momento en el que no se pueden cortar porque están unidas, la unión hace la fuerza” (E1).

4. ONDORIOAK

Ahalduntzearen eta parte-hartze sozialaren inguruko lan honek, sexu langileen kolektiboan oinarrituta, gaiari gerturapena egiteko ikasketa prozesua suposatu dit. Honen bidez, etorkizuneko gizarte hezitzaile gisa ardura kolektiboaren barnean kokatutako gaia den heinean, parte-hartze sozial dinamiketan oinarritutako esku-hartzeen aldeko apustua da. Honekin batera ere, gizarte eraldaketarako premisatzat hartutako kolektiboen arteko saretzea eta aliantza gauzatzeko prozesuen aldarria izan

nahi du lan honek. Modu honetan, esparru sozialean barnebiltzen diren ekimen hezitzaileetan kokatuz gizarte hezitzaileen lana, gizarte konpromisoaren barnean.

Mintzagai izan dugun kolektiboari bueltatuz eta lanean zehar errepikatu denez, historikoki ukatua izan zaien ahotsaren birbalorizazioa bilatzekotan diskurtso analisiaren teknika izan da aukeratutakoa. Honetarako, lanketa teorikoarekin bat zetorren kasua aukeratu ostean, honetaz baliatu naiz bai lana burutzeko eta planteatutako helburuei erantzuna emateko zein prozesuaren barneko parte-hartzailea izanik eraldatze prozesuan aurrera egin ahal izateko. Ildo honekin jarraituz, zintzotasun lana da onartzea lan honek dituen mugak, bai metodologikoki zein helburuei dagokionez. Izan ere, marko teorikoaren bidez planteatutako gako guztiak ezin baitira frogatu, gizarte eraldaketa sustatzearekin loturik daudenak hain zuzen. Honekin batera, beharrezkoa da aipatzea ere, prozesu askatzaile honetan, beste guztietan bezala, hainbat oztopo eta muga aurkitzen direla, hura bultzatzea eta aurrera eramatea zailtzen dutenak. Ondorioz beharrezkoa da azpimarratzea planteatzen den prozesua ez dela batere sinplea, bai eta honetan parte hartzen duten eta lanean zehar jorratu ez diren faktoreek ere konplexutasuna ematen dietela.

Helburuei dagokionez, honelako ahalduntze prozesuek parte-hartzaileen autoestimuan, kontzientzia kritikoan eta saretzean zer nolako eraginak dituzten aztertzea planteatu da, honetan eragin positibo eta biderkatzaileak aurreikusiz. Honenbestez, nahiz eta esan den bezala hau gerturapen prozesua baino ez dela, lanaren garapenean ikusi ahal izan den bezala proiektuaren eragin positiboak agerikoak izan dira. Izan ere, kolektiboaren kezka eta interesak lantzea, hausnarketa, kezka, aldarri eta sentimenduak partekatzeak indartu egin ditu parte-hartzaileak luzea eta amaigabea den ahalduntze prozesuan aurrera egiteko. Aipatutako hausnartze eta parte-hartzeak, bai autoestimuan zein kontzientzia kritikoaren garapenean eragin ahal izan du. Honekin batera, saretzearen hastapenak atzeman ahal izan dira tailerrari esker, nahiz eta honetan bestelako faktore eta eragilek ere parte-hartzen duten.

Lan honek aztergai izan duen kasuak beraz, hainbat ekarpen egiten dizkio aipatutako prozesu askatzaileari. Izan ere, elkarrekiko ezagutza baliatuz gure arteko ezberdintasunak gainditu eta batzen gaituen horretan arreta jartzea prozesuaren indarguneetako bat izan da, gerora zubiak eraikitzea ahalbidetuko duena. Honen adierazle

izan daiteke, Ahalduntze Taldean elkar ezagutzearen eta burututako hausnarketaren ondorio ekainaren 2an, Sexu Langileen Nazioarteko Eguna dela medio, hainbat sexu langile kalera irten zirela Gasteizen lehenbizikoz, euren eskubideen aldarrian. Jende gutxi bildu zen bertan baina norabide honetan lan egiten jarraituz, gizartearen babesarekin batera ekimen ezberdinak antolatu daitezke beste hiri handiago batzuetan egiten den bezala. Honetarako, aipagarria da hiri handietan dauden elkarteek egiten duten lana, eragin sozialaren eta sexu langileei babesa ematearen bidez euren antolakuntza sustatuz. Hauek adibide hartuta, eta elkarrekintzaren bidez, aurrerapausoak eman daitezke prozesu hezitzaileetan sakontzeko.

Gasteizen ere, Bilgune Feministak, aztertutako ahalduntze taldearen dinamizatzailarekin batera antolatutako eztabaida kolektiboa aipatzekoa da ere. Honetan, sexu langileen eskubideen alde egiten duen feminismoa ildo hartuta tailerra planteatu zen, gai hau Mugimendu Feministaren baitan presentzia izan dezan eta etorkizuneko saretzeari bi aldeetatik ateak zabalduz. Hau dena ikusita, arestian esan bezala lan honek gaiari gizarte hezitzaile gisa gerturapen saiakera bat suposatzen du, dituen muga eta aukerez kontziente izanik, konpromiso sozialaren ildoari helduz ahalduntzearen ikuspegi feministaren bidez prozesu askatzaileak elikatzeke apustu gisa.

5. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Brown, Rupert. (1998). El estigma social. *Prejuicio: Su psicología social*. Madril: Alianza Editorial.

Daich, Deborah. (2012). ¿Abolicionismo o reglamentarismo? Aportes de la Antropología Feminista para el debate sobre la prostitución. *Runa*, 33(1), 71-84.

De León, Magdalena. (1999). Poder y empoderamiento de las mujeres. *Región y sociedad*, 18, 190-197.

De Miguel, Mario. (2005). *Modalidades de enseñanza centradas en el desarrollo de competencias: orientaciones para promover el cambio metodológico en el espacio europeo de Educación Superior*. 2016ko ekainaren 29an berreskuratua: http://www.uvic.es/sites/default/files/Ensenanza_para_competencias.PDF

Deslauriers Jean-Pierre eta López, Raul Eduardo. (2011). La entrevista cualitativa como técnica para la investigación en Trabajo Social. *Margen*, 61, 1-19.

Díaz, Sergio Alfaro; Mendoza, Victor Manuel eta Porras, Cecilia Margarita. (2011). Una guía para la elaboración de estudios de caso. *Razón y palabra*, 75, 1-25

FRIDE (2006). El Empoderamiento. *Desarrollo "En contexto"*, 01, 2-8.

Garaizabal, Cristina. (2008). El estigma de la prostitución. *Transversales*, 10, 1-8.

Genaro, Antonia. (2007). Hetaira: Una experiencia de lucha por los derechos de las prostitutas. *Documentación Social*, 144, 123-134.

González, Nydia. (2011). Educación popular y pedagogía. *Educación de Adultos y Desarrollo*, 76. 2016ko maiatzaren 20an berreskuratua: <https://www.dvv-international.de/es/educacion-de-adultos-y-desarrollo/ediciones/ead-762011/educacion-popular-y-el-reflect/educacion-popular-y-pedagogia/>

JASS, Asociadas por lo justo (2008). El Poder: Conceptualizando el poder para avanzar la justicia y la equidad. *Haciendo que el cambio sea una realidad*, 3, 1-21.

Juliano, Dolores. (2005). El trabajo sexual en la mira. *Cadernos Pagu*, 25, 79-106.

Kawulich, Barbara. (2005). La observación participante como método de recolección de datos. *Forum Qualitative Research*, 6(2), 1-23.

Marcos de la Pisa, María Loreto. (2012). *La participación como herramienta de empoderamiento en procesos de inclusión social*.

Montero, Justa eta Zabala, Begoña. (2006). Algunos debates feministas en torno a la prostitución. *Viento Sur*, 87, 97-103.

Morata, Txus. (2014). Pedagogía Social Comunitaria: un modelo de intervención socioeducativa integral. *Educación Social. Revista de Intervención Socioeducativa*, 57, 13-32.

Murguialday, Clara. (2013). *Reflexiones feministas sobre el empoderamiento de las mujeres*. Bartzelona: Cooperacció.

Osborne, Raquel. (2005). Trabajadoras del sexo. *I. Congreso Internacional y Virtual en Prostitución: comercio de personas sin fronteras*. Instituto Balear de la Mujer eta Pedagogía y Didácticas Específicas de la Universidad de las Islas Baleares (UIB)-ek antolatutako kongresu birtuala, Palma de Mallorca.

Yacuzzi, Enrique. (2005). El estudio de caso como metodología de investigación: teoría, mecanismos causales, validación. *CEMA Working Papers: Serie Documentos de Trabajo*, 296, 1-37.

6. ERANSKINAK

1. Eranskina – Nahikari programa

PROGRAMA NAHIKARI: Atención Social y Acompañamiento a personas en el ámbito de la Prostitución.

sidálava

Actividad: EMPODERAMIENTO: TALLER DE FORMACIÓN EN TEMAS DE GÉNERO

La Actividad busca promover procesos de concienciación y empoderamiento de las mujeres desde su condición de Género, dotándolas de herramientas para cambiar esa discriminación que cotidianamente enfrentan.

La toma de conciencia de la discriminación histórica de las mujeres, por el hecho de ser mujeres, es un elemento inicial para saber el porqué, partiendo de la diferencia sexual, biológica, ha habido un traslado de esa diferencia a lo social, situación que ha traído graves consecuencias a las mujeres en su calidad de vida, y en todos los ámbitos como el trabajo, la familia, sus ingresos, la violencia de género, etc. Por esta discriminación la mitad del mundo vive de manera distinta que la otra y son las mujeres las que se llevan la peor parte.

El Patriarcado es un sistema mediante el cual se ha dotado a "lo masculino" unos valores excluyentes del resto de valores por lo que, aquello que no se considera como masculino está situado en el margen, en la exclusión, en la no valoración y el no reconocimiento.

El análisis feminista y el empoderamiento como una toma de conciencia individual y colectiva, poniéndole nombre a esa diferencia sexual trasladada a lo social y a los valores que el capitalismo eleva a nivel de principios, es decir los valores masculinos, son partes fundamentales de este proceso formativo. Partimos de principios como la defensa de los Derechos Humanos y de una ciudadanía crítica y activa, desde la pluralidad y la diversidad para crecer y enriquecerse mutuamente.

La equidad, entendida como el respeto de las diferencias y entendiendo de que no todas las personas somos iguales, puede traernos el mismo disfrute de los derechos humanos a todas las personas independientemente de nuestra opción sexual, raza, creencia religiosa, etc.

Otro de los elementos fundamentales y punto de partida de esta actividad es la toma en cuenta de los saberes y protagonismos de las mujeres, como sujetas activas capaces de darle rumbo a los procesos facilitados. La interseccionalidad, entendida como un modelo de análisis de las diferencias sociales, es también un concepto que nos ayuda a ubicarnos en la sociedad y nos permite ver las diferentes vulnerabilidades y discriminaciones que tenemos que transformar.

Objetivos específicos

- Dotar a las mujeres de conceptos útiles para entender su condición de género y el trabajo que desarrollan y que les aporten herramientas para enfrentar su realidad.
- Empoderar a las mujeres mediante la reflexión de las desigualdades entre mujeres y hombres a fortalecer su autoestima y valorarse.

Descripción de la actividad

La Formación en temas de Género, está dirigida a 12 mujeres! transexuales (grupo estable), con una duración de tres horas cada sesión. Los contenidos se detallan a continuación, teniendo en cuenta que alguno de los temas podría ocupar 1, 2 o 3 sesiones, las sesiones se realizarán los días miércoles del mes, en horario de: 16:00-19:00, en la Casa de Asociaciones Simone de Beauvoir. Temas: Binarismo Sexual. Roles de género y estereotipos, Violencia Machista, Amor romántico, Maternidades, Cuidados y Trabajo Sexual y Trabajo Doméstico.

Metodología y desarrollo de la actividad

El taller se imparte a un grupo estable de aproximadamente 12 mujeres para facilitar la transmisión de contenidos, que con un grupo más amplio y variable sería más complicados trabajarlos. Las diversas experiencias de los grupos de diferentes culturas permiten reconocer que la condición de género es universal y el compartir experiencias aporta a la toma de conciencia y nos permite reconocer que las mujeres en general no somos tan diferentes en lo que a la educación patriarcal se refiere.

Estas herramientas serán transmitidas mediante metodologías, dinámicas, acciones y procedimientos de trabajo basados en la Educación Popular, que buscan tomar conciencia y apropiarse de la realidad que se vive. La Educación Popular, es una herramienta que nos permitirá informar, formar y dotar a las mujeres de herramientas para una reflexión básica y de manera dinámica. Técnicas como la lluvia de ideas, el debate, el partir desde los conocimientos y la experiencia del mismo grupo, etc. son metodologías que nos aseguran interiorizar procesos de empoderamiento y su protagonismo sociopolítico. Estas Metodologías son muy utilizadas por el movimiento feminista en comunidades de América Latina y con mujeres saharauis y africanas.

La metodología planteada toma en cuenta mediante un enfoque integral la situación de desigualdad y vulnerabilidad en la que se encuentran gran parte de las trabajadoras sexuales, en lo que a sus condiciones del desempeño de sus actividades, además de su condición de extranjeras. En resumen todos los ejes metodológicos que guían las dinámicas son vivenciales y de la educación popular.

Temporalización

El taller se distribuye, en 7 temas con una duración de 3 horas cada sesión, teniendo en cuenta que algunos temas podrían ocupar 1, 2 o 3 sesiones.

Durante el mes de enero se hará la planificación general del contenido de las sesiones, en la que se recogerán los temas a trabajar. Se elaborará un calendario de reuniones para la preparación de las sesiones del taller que posteriormente se detallará e irá adaptando a las necesidades. Durante el mes de Diciembre se realizará la evaluación final de la actividad. Las fases de preparación, captación, desarrollo y evaluación de las reuniones abarcarán todo el año.

Evaluación

Para evaluar esta actividad se valorará por un lado el nivel de conocimientos adquiridos y por otro, el grado de satisfacción de las personas participantes, lo que nos permitirá saber el grado de consecución de los objetivos. Se diseñarán distintos cuestionarios adaptados a los temas abordados y un cuestionario de evaluación del grupo. Se tendrá en cuenta también el número de asistentes, la media de asistencia, las observaciones del personal técnico que participe en las sesiones, la valoración que realicen las personas asistentes, la adecuación tanto del número de sesiones como de su duración, contenidos... Al finalizar el año se valorará la actividad en su conjunto y se incluirán las modificaciones que se consideren oportunas.

2. Eranskina – Elkarrizketen gidoia

ELKARRIZKETA 1:

(lang. Sexuala)

1. blokea: Esperientzia orokorra

- 1.- Nola baloratuko zenuke zure esperientzia Ahalduntze Taldean?
- 2.- Zer nolako eraginak izan ditu zuregan esperientzia honek? (zentzu guztietan)

2. blokea lurreratzen

2.1 autoestimua

- 4.- Nola baloratuko zenuke talde honetan sortu den giroa eta garatu diren harremanak? Zer nolako eragina izan dute zuregan?
- 5.- Zure ongizate pertsonalari dagokionez, babes espazioa kontsideratuko zenuke hau? Lagungarria suertatu zaizu aurrera egiteko?
- 6.- Saio ezberdinetan zehar zuengan estigmak duen eragina agerian geratu da, indarrak edota estrategiak aurkitu dituzu talde honetan modu indibidualean hauei aurre egiteko?

2.2 kontzientzia kritikoa

- 7.- Saio ezberdinetan zehar landu ditugun kontzeptu -gaien eta modu pertsonalean zein kolektibo gisa bizi duzuen errealitatearen arteko harremana ikusi duzu? Zein zentzutan?
- 8.- Baliagarritasuna ikusten diezu hauei (kontzeptu, gai eta izandako eztabaidei) zure eguneroko bizitzan? Zergatik (ez)?

(Adib.: sexu-generoa, indarkeria matxista etab.)

2.3 artikulazio estrategiak

- 9.- Uste duzu horrelako taldeak / eztabaidak bultzatzeak zuen artean elkartzea eta antolatzea bultzatzen duela?
- 10.- Indarrak aurkitu dituzu taldean “kalera irteteko” eta zuen egoeraren inguruko salaketa edota aldarrikapena egiteko?
- 11.- Uste duzu talde honetan elkartzeak eta bizi duzuen errealitateaz eztabaidatzeak mobilizatzea bultzatzen zaituztela?

ELKARRIZKETA 2: (dinamizatzailea)

- 1.- Zer nolako beharra edota interesa ikusten duzu talde hauek abiatzeko?
- 2.- Zergatik uste duzu erabakigarria dela lanketa teorikoa egitea? (dugun gaitegia)
- 3.- Horrelako esperientziek kolektiboaren antolakuntza sustatzen dutela deritzozu? Zergatik?
- 4.- Ahalduntze Taldea dugu hau, zergatik esango zenuke esperientzia honek ahalduntzea bultzatzen duela?
- 5.- Dinamizatzaile gisa ekimen hezitzailea burutzen duzu, nolakoa izan behar da hezitzaileen esku-hartzea prozesu hauetan?
- 6.- Zein da gizarteari edota mugimendu sozialei dagokien papera kolektibo honekiko?
- 7.- Mugarik ikusten duzu? Nola ekidin edota murriztu litezke?